

Eleaniztasunari eta teknika legegileari buruzko sinposioa

(Symposium on Multilingualism and Legislative Techniques)

GALLASTEGI ARANZABAL, Cesar

Foru eta Administrazio Zuzenbideko irakaslea
Deustuko Unibertsitatea
Unibertsitateen etorbidea, 24
48007 Bilbo
cgallastegi@economista.org

BIBLID [1137-1951 (2001), 8; 123-125]

Eusko Legebiltzarraren 20. urteurrena dela eta, azaroaren 14 eta 15ean, *Eleaniztasunari eta Teknika Legegileari buruzko sinposioa* burutu da Bilbon. Sinposioak iraun duen bi egunetan hainbat aditu aritu dira Deustuko Unibertsitateko entzungela nagusian legegintza eta koofizialtasunaren inguruko esperientziak eta erronkak aztertzen.

Con motivo del 20º aniversario del Parlamento Vasco, los días 14 y 15 de noviembre tuvo lugar en la Universidad de Deusto el *Sinposio sobre Plurilingüismo y Técnica Legislativa*, en el que expertos de varios países plurilingües narraron sus experiencias sobre la legislación y la cooficialidad y analizaron los futuros retos.

a l'occasion du 20ème anniversaire du Parlement Basque, a eu lieu, les 14 et 15 novembre à l'Université de Deusto, le *Symposium sur le Plurilinguisme et Technique Législative* au cours duquel de nombreux experts présentèrent leurs expériences sur la législation et la co-officialité et analysèrent les futurs défis.



Jardunaldien gai nagusia, beraz, hizkuntz eleaniztasuna eta legegintzaren arteko loturak lantzea izan da. Dakigunez, lurralde askotan hizkuntza bat baino gehiago daude eta, zenbait kasutan, hizkuntz aniztasuna koofizialtasunaren bidez babestuta dago. Kasu horretan ondorioak araugintzaren esparrura ere heda daitezke. Lansaioetan bai zergintza horretan tradizio luzea duten atzerriko herrialde batzuen esperientzia, bai Estatuko erkidego elebidunena ezagutzeko aukera izan dugu. Horrez gain, euskararen gorabeherak erakunde arauemaileetan (Eusko Legebiltzarra, Nafarroako Parlamentua, Bizkaia, Gipuzkoa nahiz Arabako Batzar Nagusiak) aztertu dira. Egitasmo horri behar bezala erantzuteko, Sinposioaren Batzorde Antolatzaileak (Eusko Legebiltzarreko, Deustuko Unibertsitateko eta IVAP-HAEEren ordezkariak osatua) eginbeharra lau zatitan banatu eta munduko, Estatuko zein Euskal Herriko jakitun, irakasle, eragile juridiko eta profesional entzutetsuak bildu zituen.

Sinposioaren hasiera ofizialean Juan Maria Atutxa jn. (Eusko Legebiltzarreko lehendakaria), Rosa Miren Pagola and. (Deustuko Unibertsitateko Ikasleen eta Hizkuntz Politikako errektoreordea), Jaime Oraá jn. (Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko dekanoa) eta Santiago Larrazabal jn. (Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuko zuzendaria) izan genituen. Ikusleei dagokienez, entzungela bete-beterik zegoen: unibertsitateko zuzenbide ikasle, irakasle, Administrazioako langile, itzultzaile...

Aurkezpen saioa bukatu eta gero, adituen txanda heldu zen. *Aurrekariak eta nazioarteko esperientzien erkaketa* zuen izenburua jardunaldietako hasierako zatiak. Juan Churruca (Deustuko Unibertsitateko Erromako Zuzenbideko katedradun emeritua) izan zen lehen hizlaria; bere mintzaldian *Hizkuntzak eta Zuzenbidea Antzinatean* gaia jorratu zuen. Horren ostean gaur egungo nazioarteko zenbait esperientzia ezagutzeko parada izan genuen. Hasteko, Europako Batasunaren barrukoak ezagutu genituen, Felix de la Fuente jaunaren (Europako Parlamentuko espainiarazko akten arduraduna) *Eleaniztasuna eta teknika legegilea Europar Batasunean* izeneko ponentziaren bidez. Horren atzean Estatu eleanitz batzuen egoerak ezagutzera eman ziren. Michel Doucet jaunak (Monctoneko Unibertsitatekoa) *Elebitasuna eta Zuzenbidea Kanadan* hitzaldia eman zuen. Aztertutako bigarren Estatua Belgikakoa izen zen, Robert Myttenaere jaunari esker (Belgikako Ordezkarien Ganberako idazkari nagusiaren ondokoa) eta, azkenik, Suitzakoa, Georges Ludi irakaslea izan baikenuen (Basileako Unibertsitateko Hizkuntza Erromanikoen Mintegikoa). Goizari azkena emateko, ikusleek parte hartzeko aukera izan zuten, Anjel Lobera jaunak (Euskara Sustatzeko zuzendari nagusia Foru Aldundiko Kultura Sailean) zuzendutako mahai-inguruan.

Lehenengo egunaren bigarren saioa *Hizkuntzen ofizialkidetasuna eta legegintza Espainiako Estatuan* izenburupean garatu zen. Jesús Prieto de Pedro jaunak (UNEDeko errektoreordea) hasi zuen arratsaldeko ekitaldia, *Lege hizkera Autonomien Estatuan* izeneko hizketaldiarekin. Haren atzean bi hizkuntza ofizial dituzten autonomia erkidegoetako ordezkariak agertu zitzaizkigun. Katalunia, Galizia, Balear Uharte eta Valentziako egoerak ezagutarazi zizkiguten honako txostengile hauek: Carles Duarte (Generalitateko Lehendakari izeneko idazkari nagusia eta *Llengua i Dret* aldizkari zuzendaria), Luis Rodriguez (Erromako Zuzenbideko katedraduna eta *Lingua i Dereito* aldizkariaren zuzendaria), Catalina Palmer (Parlamentuko itzulpen eta argitalpen zerbitziburua) eta José Luís Masiá (Valentziako Gorteetako Argitalpen zerbitziburua). Ponentzien azalpena bukatu eta gero, mahai-inguru bat izan zen, hizlariari galderak egiteko. Arratsaldeko lansaiolari dagokionez, esker bereziak Karmelo Zamalloari (Eusko Legebiltzarreko eta Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Autonomikoaren irakasle ohia) eta Andoni Iturberi (Eusko Legebiltzarreko legelaria). Lehenengo, hain zuzen ere, arratsaldeko saioaren aurkezle eta moderatzaile gisa aritu zen eta bigarrenak Catalina Palmerren txostena irakurri zuen, Balear Uharteetako ordezkariak ez baitzuen Bilbora etortzerik izan.

Jardunaldien bigarren eguna bi gai nagusi hauek banandu zuten: *Euskara eta legegintza elebiduna eta Elebitasuna, teknika legegilea eta erakunde akademikoak*. Goizean, beraz, euskararekin lotuta dauden araugintzaren esperientziak ezagutu genituen. Hurrenkerari jarraituz, hona hemen hizlariak: Eusko Legebiltzarretik Jesus Maria Agirre (Eusko Legebiltzarreko idazketa eta itzulpen zerbitziburua), Arabako Batzar Nagusietatik Koldo Biguri (Batzar Nagusietako itzultzailea eta EIZIEko lehendakaria), Nafarroatik Xabier Aristegi (Nafarroako Parlamentuko itzultzailea) eta Gipuzkoatik Iñigo Lamarka (Gipuzkoako Batzar Nagusietako legelaria). Goizekoa saioa behar bezala amaitzeko, eztabaidarako mahai-inguru bat antolatu zen, Rosa Miren Pagola andrearen ardurapean (Deustuko Unibertsitateko Ikasleen eta Hizkuntza Politikako errektoreordea).

Bigarren eguneko arratsaldean, asteazken arratsaldean, *Elebitasuna, teknika legegilea eta erakunde akademikoak* izeneko lansaiola aurreikusita zegoen. Saioa eta ondorengo mahai-ingurua Andres Urrutiak (Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta Euskaltzain osoa) gidatu zituen. Gaia joratzeko Hego Euskal Herriko hainbat unibertsitateko ordezkari izan genuen; hona hemen mintzalarion izenak: Anjel Lobera (Euskara Tekniko Juridikoko irakaslea Deustuko Unibertsitatean), Jon Landa jn. (Euskal Herriko Unibertsitatekoa), Aitziber Arregi and.

(Mondragon Unibertsitatekoa), Juan Cruz Alli jn. (Nafarroako Gobernuko presidente ohia eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea), Carlos Vidal jn. (Nafarroako Unibertsitatekoa), Jon Agirre jn. (Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialeko burua, IVAP-HAEE) eta Jose Luis Lizundia jn. (Euskaltzaindiko idazkariordea eta kudeatzailea). Sinposioari amaiera emateko Jean Haritschelhar jn., Euskaltzaindiko lehendakaria, eta Nekane Alzelai, Eusko Legebiltzarreko idazkaria. Halere, antolatzaileen lana ez da amaitu, partehartzaileen txostenak bildu eta aurki argitaratu behar dituztelako.